

Stai Zitto musika taldea:

"2015eko udan Euskal Herri osoan jo nahiko genuke"

lazko irailean ekin zion lanari zazpikote honek. Beste talde batzuetan ibilitakoak dira kide gehienak eta musika kontuetan esperientzia dute, 17 eta 23 urte artekoak izan arren. Txosnetako musika egiten dute: rocka batez ere, ska eta reggae ukituekin, eta lehen diskoa kaleratu berri dute.

- Duela aste pare bat kalera-tu duzue diskoa. Aurkezteko aukerarik izan duzue?

Bai, Eibarko Ez Dok tabernan egin dugu aurkezpena orain dela gutxi. Harreman oso ona dugu tabernakoekin eta haiek eskatu ziguten. Leku berezia da guretzat.

- Zenbat abestik osatzen dute diskoa?

Zazpik. Bat instrumentala da, bi gaztelaniaz dira eta gainontzekoak euskaraz. Sei hilabete inguru behar izan ditugu dena prestatzeko; bi-tartean, zuzenekoak egiten joan gara.

- Zuek grabatu duzue?

Ez, Usurbilen grabatu dugu, Higain Estudiosen. Gauzak ondo egin nahi genituen, ez maketa ziztrin bat. Ho-

geita bat eguneko prozesua izan da, eta, egun horietan, taldekide baten senidearen etxean egin dugu lo, Orion.

- Zenbat ale kaleratu dituzue?

1.000 ale, eta salgai dande Lurpen, Txalapartan, Otu-muron, Juana Mari denda, Musikal Araban eta Eibarko Ez Dok tabernan. Facebook, Twitter eta Band-campa ere badugu, eta bertan eska daiteke.

- Talde kopurutsua zarete eta hainbat musika-tresna jotzen dituzue, ezta?

Bai, Julen Rodríguezek, tronpetak; Maialen Arrizabalagak, ahotsa eta saxofoia; Axier Urangak, baxua; Danel Ferreñok, bateria; Xabier Martinek, tronboia; eta An-

doni Condek eta Asier Cascánek, gitarrak.

- Nola ezagutu zenuten elkar?

Gehienok Alboka Musika Eskolan ikasi dugu, eta bertatik jaiotako taldea dela esan dezakegu.

- Zeinek sortzen ditu abestiak?

Maialenek letrak idatzi eta Asierrek erritmoak eta melodiak sortzen ditu. Gero, denon artean komentatu, eta bakoitzak gure ekarpenak egiten ditugu. Galbaheak pasatzen ditugu. Kontzertuetan bertsioak ere jotzen ditugu: Gatibu, Jet, Berri Txarrak, Hertzainak, Betizu...

- Zeri buruz hitz egiten dute zuen abestiek?

Poztasuna, maitasuna, askatasuna... Abesti alaiak dira.

- Zein da zuen helburua musikan?

Lehenik eta behin, ondo pasatzea. Bestalde, ez dugu ospetsu egin nahi, baina nahiko genuke jendeak jakitea hor gaudela; azkenik, jotzea eta jotzea da gure asmoa.

- Nola ikusten duzue zuen burua hemendik urte batzuetara?

Hemendik bi urtera espero dugu gure musika zabaldu



izana. Beharbada ez dugu musikatik bizimodua aterako, baina tira, laguntza izan daiteke. Lan itsusia egiten ari gara egun gure burua ezagutzera emateko: mesedeak eskatuta, baldintza txarretan jotzen, dirua galtzen...

- Zenbat kontzertu eman dituzue orain arte?

Momentuz... hamar bat. Berandu atera dugu diskoa eta herri guztietan dituzte jada kontzertuak lotuta. Horregatik, udan deskantsatu eta irailean hasiko gara gogor. 2015eko uda da gure erronka, Euskal Herri osoan jo nahiko genuke. Hau da gure kontaktua: 626530267 eta staizittoband@gmail.com.

- Zer esan nahi du Stai Zitto izenak?

Maialen Itailan egon zen iazko udan, eta Romako ospitale batean kartela ikusi nuen: Stai Zitto. Hangoei galdetuta, zaude isilik esan nahi zuela esan zioten. Gustatu zitzaigun. Bisualki ezberdina da eta ironikoa ere: musika taldea gara eta gure izenak isilik egoteko agintzen du!

Dorleta Vidal



Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda
berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

Drogeteniturrri, 225 zkia.

OUTUMURO
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu